

Euskaltzaindiaren XIV. Jagon Jardunaldiak
Etorkinak eta Euskara
Aurkezpena

Euskaltzaindiaren Sustapen batzordeak “etorkinak eta euskara” gaia landu nahi du XIV. Jagon Jardunaldian.

Euskaltzaindia, besteak beste, euskararen babes eta sustatze lanetan aritzen da, horiek baitira Jagon Sailaren Sustapen batzordearen egitekoak. Erne egoten da, bada, gizartean hizkuntza normalizazio bidean ematen diren urratsei eta aldaketei eta hauen inguruan, urtero, gogoeta egiten du Jagon jardunaldietan.

Horrela, iazko Jardunaldietan kontsumoaren arloan euskararen egoera eta bilakaera aztertu genuen eta aurten, berriz, pil-pilean dagoen immigrazioaren gaiari heldu diogu.

Azken urteotan Euskal Herrira iristen ari diren etorkinen kopuruak gora egin du nabarmenki, 60ko hamarkadaz geroztiko igoerarik handiena izan da. Honek kezka sortu du hainbat arlotan, eta nola ez, baita euskalgintzan ere. Euskararen normalizazioan handik eta hemendik etorritako jendeak nolako eragina izanen du? Euskara hizkuntza gutxitua izanik, eta Euskal Herriko gizartean integratzeko beharrezkoa ez bada, zer jarrera hartuko du jende horrek euskararekiko?

Inmigrazioaren fenomenoaren ezagutzeko, honen inguruan hausnartzeko, gogoeta egiteko, zenbait herritako esperientziak biltzeko eta baloratzeko garaia dugula iritzi diogu Euskaltzaindian. Gaur, hemen, saiaturko gara etorkinak ezagutzen eta hauen integrazioa errazteko bidea irudikatzen.

Euskaltzaindiak, Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutua eta Unesco Etxearekin batean antolatu duen jardunaldi honetara etorkinekin lanean ari diren edota honetan adituak diren pertsonak ekarri ditu. Horrela, pertsona hauengandik ezagutuko dugu Euskal Herrian gizartea nola aldatu den, eta orain bizi dugun eleaniztasunak

nola eragin dezakeen hizkuntza nagusiaren eta gutxituaren arteko harreman gatazkatsu horretan. Etorकिनak Ipar Euskal Herrian helduen euskalduntzean duen indarra azalduko digute; etorkinen eskubideak errespetatzeko hartu beharreko neurriak zein diren hausnartuko dugu; Sakanako, Markinako eta eskolako esperientzien berri izanen dugu; eta hezkuntzako sistema eleaniztuna ezagutzeko ere aukera bikaina emanen digu jardunaldi honek.

Bilbon, 2009ko azaroaren 20an
Sagrario Aleman, Sustapen batzordeko burua